

ROTTERDAMGO PLASTIKOZKO ZUBIAK

Posted on 26/03/2016 by Naider



Rotterdam munduarentzat adibide bat da berrikuntza berdeen bilaketan. Duela hilabete batzuk [plastiko birziklatuz errepideak eta kaleak eraikiko zituelaren](#) berri ikusi genuen bezala, orain ez gaitu gehiegi harritu hori jakiteak. zuntzez indartutako plastikoz egindako zubiak eta pasabideak erabiltzen dituzte. 2009an hasi ziren degradatutako altzairu eta zementuzko pasabide zaharrak material horrekin ordezkatzen, eta dagoeneko plastikozko 90 inguru dituzte.

**Gogoratu behar da Herbehereetako hiria ibai handi batek eta
ubide ugarik zeharkatzen duela, eta horregatik
oinezkoentzako eta txirrindularientzako 850 zubi dituela**

**Nola argudiatzen duzu material honen aldeko apustua?
Plastikozko zubiak askoz errazagoak dira instalatzen, egun
bat baino gutxiago behar dute, metalezko edo egurrezko
zubiekin alderatuta, hauek eraikitzeko hiru aste behar izaten
dituzte,**